

Kutxabank Txartel Birtuala

Segurtasun handiagoa online erosteko



Zer da txartel birtuala?

Doako zerbitzua da. Interneten segurtasun handiagoarekin erosketak egiteko aukera eskaintzen dizu, txartel fisikoa erabili behar izan gabe.

Zuk aukeratutako txartel fisikolari lotutako txartel birtualak sortu ahal izango dituzu, aurrez zehaztutako gehieneko muga eta iraungipen-datarekin.

Hala, ez dira benetako txartelaren datuak agerian egongo.

Nolako onurak dauzka?

Ez dituzu txartel fisikoaren **datuak adierazi** behar. Zenbatekoa eta iraungipen-data mugatu ditzakezu.

• KutxabankPay app-etik eta Online Bankatik nahiz Banka mugikorretik, **behar adinako txartel birtualak sortzeko** eta kudeatzeko aukera izango duzu.

Lotuta dagoen txartel fisikoaren **istripuetarako eta bidaiari asistentzia emateko aseguruaren estaldura** berak ditu.

Hori guzti hori modu azkar eta errazean.

Eta jakina, **inolako kosturik gabe**.

*Kontuan izan **txartel birtuala ez dela baliozkoa, erosketa jasotzean, txartel fisikoa aurkeztu** behar baduzu.

Nola sortu daiteke txartel birtuala?

KutxabankPay app-etik edo Online Bankan, Banka mugikorrean eta honako atalean sartuta:
Txartelak > Eragiketak.



Aukeratu zure txarteletako bat txartel birtual berriari lotzeko.



Ezarri **gehieneko diru-kopurua** eta **iraungipen-data**.



Sistemak berak eskainiko dizkizu online erosteko behar dituzun **txartel birtualaren datuak** (zenbakia, iraungipen-data eta CVV).



Zure kontuan **benetan erabiliko dituzun diru-kopuruak zordunduko** dira.



Nahi duzunean, txartel birtualetako bakoitzaren **muga ikusteko eta aldatzeko** edo horiek ezeztatzeko aukera duzu.